

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZARTE POLITIKEN, ADINEKOEN ETA HAURREN SAILA

##### Garapenean Laguntzea

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko otsailaren 21eko erabakiaren laburpena, zeinaren bitartez Vitoria-Gasteizko Udalak garapen-bidean dauden herrialdeetako populazioek ura edo saneamendua izan dezatela ahalbidetuko duten proiektuetarako dirulaguntzak arautuko dituen deialdi publikoa egiten baita**

BDNS (Identif.): 497790

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>).

#### **Lehen. Onuradunak**

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko organizazio edo entitateek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta beren jarduerak deialdi honen xedearekin bat badatoz, eta Vitoria-Gasteizen duten presentzia eta jardunari eusten badiote.

#### **Bigarrena. Helburua**

Garapen-bidean dauden herrialdeetako populazioek ura edo saneamendua izan dezatela ahalbidetuko duten proiektuak gauzatzen hasteko dirulaguntzak ematea du xede deialdiak.

#### **Hirugarrena. Oinarriak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 21ean onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

325.000 eurokoa da deialdiaren zuzkidura, hauek batuta:

225.000 euro, udal aurrekontuko 1150 2391 4 8200 Lankidetzarako dirulaguntzak partidaren kontura,

eta, 100.000,00 euro, Vitoria-Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA) udal enpresaren lankidetzarako aurrekontuaren kontura enpresaren administrazio-kontseiluak 2020ko urtarrilaren 29an onetsitako ekarpena.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta:

2020ko apirilaren 1era arte, laburpen-agiriak eta, behar denean, behin betiko formulazioa egiteko dirulaguntza eskabidea,

2020ko irailaren 3ra arte, behin betiko proiektuei dagozkien eskabideak.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 21ean

*Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
**ROSA ANA URTARAN URTARAN**